

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

269/2026 Foru Agindua, maiatzaren 22koa. Karrerako funtzionario izendatzea, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzan karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: Administrazio Orokorreko eskala, teknikarien azpieskala, A taldea, A1 azpitaldea, (kodea: 1521)

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren abenduaren 18ko 671/2024 Foru Aginduaren bidez, onespena eman zitzaien 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzen ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren zerbitzura karrerako funtzionario izateko deitutako hautaketa prozesua arautzeko oinarri orokorre.

Abenduaren 19ko 678/2024 Foru Aginduaren bidez, onespena eman zitzaien Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean, Administrazio Orokorreko eskalan, teknikarien azpieskalan, A taldean, A1 azpitaldean, karrerako funtzionario izateko deialdiari eta hura arautzen duten oinarri espezifikoak (kodea: 1521).

Hautaketa prozesua amaitu eta epaimahai kalifikatzaileak hura gaingitu duten izangaiak izendatzeko proposamena egin ondoren, karrerako funtzionario izendatu behar dira Administrazio Orokorreko eskalako teknikarien azpieskalako A taldeko A1 azpitaldean.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horrez gain, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, bat etorritik dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionario izendatzea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean, Administrazio Orokorreko eskalan, teknikarien azpieskalan, A taldean, A1 azpitaldean, karrerako funtzionario izateko 2021eko eta 2022ko enplegu eskaintzei dagokien deialdia gaingitu duten izangaiak (kodea: 1521), jarraian adierazten diren lanpostuetan:

IZENA	KODEA	LANPOSTUA
Amaya Heras Oruechevarria	1157.028	Zuzeneko zergen kudeaketako teknikaria
Eduardo González Torre	1158.002	Zeharkako zergen kudeaketako teknikaria
Miguel Bardera Barbolla	1157.027	Zuzeneko zergen kudeaketako teknikaria
Laura Ortiz de Landaluce Azcona	1165.014	Kudeaketa teknikaria
Ana Isabel Reyes García	1208.001	Proiektuei laguntzeko teknikaria
Silvia Sánchez López de Sosoaga	1157.007	Zuzeneko zergen kudeaketako teknikaria
Paloma García Albo	1158.004	Zeharkako zergen kudeaketako teknikaria
Laura Hortas Regueras	1125.001	Ekonomia eta aurrekontu teknikaria
M ^a Blanca Pérez Fernández de Arroyabe	1277.002	Ikuskaritzaren kudeaketako teknikaria
Irati Armentia Mendía	1157.030	Zuzeneko zergen kudeaketako teknikaria
Aitor Rodríguez Vergara	1208.003	Proiektuei laguntzeko teknikaria
Alfonso Roa Marquinez	1158.014	Zeharkako zergen kudeaketako teknikaria

Bigarrenena. Izendatutako pertsonak 2026ko irailaren 1ean hartu beharko dute jabetzan esleitutako lanpostua.

Ezarritako egunean lanpostua jabetzan hartzen ez badute, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiko funtzionario izaera izateko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak esleitutako lanpostuei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortua izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru Agindu honen aurka, jakinarazpen hau jaso ondorengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 22a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR